

Eragiozu

MUSICA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKETAK: X. ZEBERIO

Eragiozu eskutxo horri,
behin batari ta
behin besteari.



Oiloa galdu zaio

Oiloa galdu zaio

MUSICA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKETAK: J. SALBIDE

Oiloa galdu zaio
Mari Pandangori,
seinalpeak baditu,
bila *añal* baleti:
Isatsa beltza eta
mokua pilari,
haren arrautzatxuak
gorringoak ere bi.

Txalopin-txalo

MUSICA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKETAK: B. MARTINEZ

Txalopin-txalo,
txalo ta txalo.
Katuoxa mizpira
gainean dago.
Badago bego,
bego badago!
Zapatatku berriari
begira dago.

Zaldibiko plazan

MUSICA: FOLK-N. DE FELIPE TEXTUA: FOLK-N. DE FELIPE
KONPONKETAK: J. SALBIDE

Zaldibiko plazan
hiru atso dantzan,
hirurak ez zutela
ardit bana poltsan.
Hiru atso dantzan,
ardit bana poltsan,
hirurak ez zutela han, han, han,
Zaldibiko plazan.

Donostiko plazan
lau agure kantan,
laurak ez daukatela
xentimorik poltsan.
Lau agure kantan,
xentimorik poltsan,
laurak ez daukatela hor, hor, hor,
Donostiko plazan.



Bat, bi, hiru, lau

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK
KOMPONETAK: X. ZEBERIO

Bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi, zortzi,
bederatzti, hamar,
hamalika, hamabi,
hamahiru, hamalau,
hamabost, hamasei,
hamazazpi, hemeretzi,
hemeretzi, hogei.

Hogei, hemeretzi,
hemeretzi, hamazazpi,
hamasei, hamabost,
hamalau, hamahiru,
hamabi, hamalika,
hamar, bederatzti,
zortzi, zazpi, sei, bost,
lau, hiru, bi ta bat.



Maritxu berriotsu

MUSIKA: N. DE FELIPE TEXTUA: FOLK-N. DE FELIPE
KOMPONETAK: N. DE FELIPE

Maritxu berriotsu
beti da negarrez,
masaila urtuko
zaiola beharrez.
Han plux bibiadun,
han plux bibiadun,
bibiamante, liirkun,
korran plaxet.
Maritxu berriotsu,
zer dezu negarrez?
Platera hausita,
ipurdiko minez.
Han plux bibiadun...

Ez da dembra asko
zeuk esan dezula
Saguak hankian
ausiki dizula.
Han plux bibiadun...
Zer kolore?
Txuri eta gorri.
Zer prezio?
Ereal eta erdi.
Hire senarra ta nere senarra
aserretu egin omen dittun.
Zeren gainetik?
Aza txorten baten gainetik.
Hireak dizkin kulpak eta kikkirriri (bis).
Konponduko omen dittun eta txikirritxon (bis).

Urra labiru labiru lena...

Maria goikoa

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KOMPONETAK: J. SALBIDE

Señor maestro

MUSIKA: FOLK N. DE FELIPE TEXTO: FOLK
KONPONKEKATAK: N. DE FELIPE

Señor maestro,
txoriya he visto,
harrya tirau,
hankian pegau,
odola saikau,
sasiyan trabau,
buscando buscando
denbora pasau.

Joan nintzarian, joan nintzarian
monte zala mendia,
ikusi nuen, ikusi nuen
pájaro zala txoriya,
tiratu nion, tiratu nion
piedra zala harriya,
atera nion, atera nion
ojo zala begiya,
botatzen zuen, botatzen zuen
odol sangre gorría.
Txotxoriya, txotxoriya,
txoriya txibillitanya.

Trontxolari

MUSIKA: FOLK TEXTO: FOLK N. DE FELIPE KONPONKEKATAK: A. LATXA

Gorako jauzia
eta berako botia,
gorako lauzia
eta berako botia,
meskatillak goian-goian
gona ta nikia.
Trontxolari, trontxolari,
trontxolari, lena.
Arin-arin, arin-arin,
itzuli morena.

Gorako saltoa
eta berako brinkoa,
gorako saltoa
eta berako brinkoa,
mutillak goian-goian
galtzak ta gerrikoa.
Trontxolari, trontxolari,
trontxolari, leno.
Arin-arin, arin-arin,
itzuli moreno.

Euria Barku dakar zaharrian

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKEKATAK: B. MARTINEZ

Egizak, egizak euria!
Errötan bazegek garia.
Ohepean zer zegok?
Aitonan buru zuria.

Euria menda
Artolako txarria

Haren gainean zer dago?
Aingeru buru zuria.

Euria dakar menditik,
Naparroaren gainetik,

aitonak babak eltzetik,
amonak opila kolotik,

elizakoen tontorra,
ustetuxua purretxua.

Euria Barku jun

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKEKATAK: A. LATXA

Barku zaharrian jun,
berrian etorri,

nere nobiyuaren
suertia den hori.

Nere nobiyuaren ama,
asto baten jabe dana,
hatbek ekarriko digu
etxeen behar degun dana.



Honek ta honek

MUSIKA: N. DE FELIPE TEXTUA: FOLK KONPONKETAK: A. LATXA

Honek amari
arrautz bat ostu zion.
Honek erreten ipini zuen.
Honek gatzra eman zion.
Honek pikka bat probatu zuen.
Eta pikaro zalar honek
dan-dana jan zuen.
Nahi duzu berriz?
Bai!



Txolin, txolin barbero

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK
KONPONKETAK: A. LATXA

Txolin, txolin barbero,
Billabonako semea, txin-txin-txin.
Andratxo batek, txin-txin-txin-txin,
hantxe zeduzkan, rau-rau-rau-rau,
hiru alaba politak, txin-txin-txin.

Eskatu nion, txin-txin,
netonek bat behar nula, txin-txin-txin,
erresuesta, txin-txin-txin-txin,
eman ziraden, rau-rau-rau-rau,
txaketa zaharra neukala, txin-txin-txin

Atso zaharraren atorra zaharra

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KONPONKETAK: J. SALBIDE

Also zaharra belendin,
hire mendeak egin din:
hortzak ere jausi zaizkin,
deabru zaharra dirudin.
Txiturnin brinkulin...

Also zaharraren kortesia,
putza dario zia-zia.
Hartzen badinat ilentzia
erreko dinat ipurdia.
Txiturnin...

Adi zan neska

MUSIKA: N. DE FELIPE
TEXTUA: FOLK-N. DE FELIPE
KONPONKETAK: X. ZEBERIO

Adi zan neska,
etxelean ze modu?
Aiton a zeukanagu
trikulu-trakulu.
Zer egin zaion bada?
Zertan trabatu?
Bart esneea jaten
kutxarila tragatu.
Hori pasako zaiok
ondo zainduta.
Nola pasako zaiok
hilik zegok eta!
La la la...

Ale arraunean

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KONPONKETAK. B. MARTINEZ

EUP! EUP! EUP! EUP!
Ale arraunean bagere,
ale palan-palan bagere. (bis). Eup!
Ale mutilak arraunean bagere,
ale neskatak palan-palan bagere. Eup!
Ale arraunean bagere,
ale palan-palan bagere. Eup!
A mutilak San Antonen bagere,
a neskatak palan-palan bagere.
EUP! EUP! EUP!
Ale arraunean bagere,
ale palan-palan bagere. Eup!
Aurreta oraintze bai neskatak,
aurrera bagere.
Ale arraunean bagere,
ale palan-palan bagere. (bis). Eup!

Marikita, mutxatxa

Marikita, mutxatxa.
Ke mandai madie?
txin, txibirin, txintxin.
Kita la mantelina,
bamos a baille,
txin, txibirin, txintxin.
Bolinien-bolinien,
fardin-fardin,
gordin-gordin,
halete baskune.
Ke burdun, ke bardan,
harrua le burdun,
turun-taran,
taria-riaran,
halere baskune,
prantzes euskaldune.

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KONPONKETAK. I. SALBIDE

Benedizebra

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KONPONKETAK. B. MARTINEZ

Benedizebra, kalo dembra,
Benedizebra, kalo dembra,
Txutxupetan, txutxupetan,
Benedizebra, kalo dembra,

Ttunkurrun ttunkurrunera,
jostailuen hotsa!
Ederki jostatzten da
gue neska mota.

Oinez ikasi du ta
hau da gure pova.
Ttunkurrun ttunkurrunera,
jostailuen hotsa!

Ttunkurrun ttunkurrunera,
jostailuen hotsa!
Ederki jostatzten da
gue motil motza.

Ttunkurrunera

MUSIKA ETA TEXTUA: FOLK KONPONKETAK. X. ZEBERIO

